

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko irailaren 10a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Maila goreneko sei talde bilduko dira Antzinako Musika Astean

Becky Siegel • «Nafarroan ere dantza garaikidea egiten ahal da»

Euskarazko



nafar irratien uhinetan barna

• JOSU SANTESTEBAN

Aralar, Karrape, Esan-Erran, Beleixe, Euskalerría, Xorroxin, Irulegi eta Irati. Zortzi irradi dira Nafarroan euskarazko uhinak barreiatzen dituztenak. Irrati ttikiak dira, langile gutikoak, baina bizitasun handikoak. Euren entzuleengandik hurbil daude, harreman zuzena dute, eta beharrezko informazioa eskaintzen diete. Aipatu lehen lau irratia elkarren ondoan daude, eta programazioaren kalitatea hobetzeko eta emisio orduak gehitzeko eztabaidetan ari dira.



Lizarra ●

Antzinako Musika Astea

Maila goreneko sei talde bilduko dira musika astearen 30. ekitaldian

Joan den asteartean hasi zen Ega ibaia zeharkatzen duen hirian Antzinako Musika Astearen 30. aldia. Dagoeneko hiru talde entzun ahal izan dira San Miguel elizan, eta gaur The Sixteen taldearen garaia da. Bihar eta etzi Capilla Peñaflorida eta Concerto Italiano izanen dira agertokian.



Lizarrako 1999ko Antzinako Musika Asteako kartela.
● ARTXIBOKOA

E RDI AROAN, BERPIZKUNDEAN edo Barrokoaren garaian sortzen ziren doinuak entzun ahal dira egunotan Lizarran. Arratseko 20:00etan San Miguel elizako barrualdeak antzinako musikaren lekukoa hartu, eta bertan gitarrak, biolinak, txirulak, lauteak, organoak eta abar entzun ahal dira, doinu eta kantu bereziak.

Lizarrako Antzinako Musika Asteak 30. ekitaldia betetzen du aurten eta urtetik urtera parte hartzen duten taldeen maila gorantz doa. Orphenica Lyra taldeak eman zion hasiera joan den asteartean aurtengo aldiari. Jose

Miguel Moreno gitarra jole barrokoaren zuzendaritzapean, Osphenica Lyra XVII. mendeko musika izan zuen ardatz. Horrela, garai hartan entzun ahal zen musika kultura zein herri musika jarri zuen agerian taldeak, esaterako: herrixketan dantzatzen ziren kalejirak eta biribilketak.

Asteazkenean, Alia Musika taldearen garaia izan zen. Talde horrek Erdi Aroko musika ikertu du urtee-

tan, eta bereziki XII. eta XIII. Mendeetako musika jo ohi dute. Egile ezagunik gabeko doinu ugari jotzen dute, besteak beste, kodize ezberdinetan aurkitutako kantuak.

Bart Pierre Hantai klabezin jolea aritu zen agertokian. Antzar lumekin xumeki jotako klabezinaren hariak soinu gozagarriak sortu zituen kontzertuan. Barroko garaian funtsezko tresna zen klabezina. Bart gaueko kontzertuan

Bachen piezak maisuki jotzen zuten musikariak.

Gaur, The Sixteen

Gaur, berriz, Antzinako Musika Aste honetako talde onenetako bat igoko da iluntzeko 20:00etan tranpaldotik gainera: The Sixteen. Hamasei pertsonaz osatutako talde hau Berpizkunde zein Barroko garaiko musika egiten maisua da. Harry Christophersen zuzendaritzapean taldeak XVI. mendeko hainbat egileren doinuak kantatuko ditu, hain zuzen ere, Francisco Guerrero, Giovanni Pierluigi eta Tomas Luis de Victoriaren obrak.

Bihar, larunbata, Capilla Peñaflorida taldeak parte hartuko du. Euskal Herrian sortu zen 1985., urtean Jon Bagues musikariaren eskutik. Orain hamahiru pertsonak osatzen dute taldea, eta biharko kontzertuan Juan Frances de Iribarren musika egilearen obrak joko dituzte; Juan Frances de Iribarren 1699. urtean jaio zen, Zangozan; organista eta musika egilea, bere omenezko saioa izanen da biharkoa.

Azkenik, igandean Concerto Italiano taldeak amaiera emanen dio Antzinako Musika Astearen aurtengo ekitaldiari. Talde horrek, Rinaldo Alessandrini klabezin jolearen zuzendaritzapean, Italiako XVII. eta XVIII. mendeetako musika aurkezteko modua erabat aldatu egin duela esaten dute adituek.

→ Kristina Berasain

Donejakue bideko irudiak

BIDEKO IRUDIAK IZENBURUPEAN, Donejakue bidea ardatz duen erakusketa ikus daiteke egunotan Lizarrako Fray Diegu kultur etxean. Joan den ostiraletik eta hilaren 13ra bitartean Donejakue bideko ikuspuntu ezberdinak jorratzen dituzten argazkiak, irudiak, taula informatibo eta maketak eskegi dira Kultur Etxeko paretetan. Erakusketa-oren ordutegia hau da: arratsaldeko 18:30etatik iluntzeko 20:30ak arte, astelehenetik larunbatera bitartean. Lizarraldeko Ikastetxe Zentroak egin du ikusgai dagoen erakusketa, eta Donejakue bideko izaera europarrak gain, bideak Nafarroan eta bereziki Lizarraldean izan duen garrantzi historikoa agerian ipintzen du.

Horrela, urteetan Santiagora joan diren erromesek omenaldia da erakusketa. Haien ibiliek garrantzi handia izan dute bidea zeharkatzen duten hiri eta herrietan. Ohiturak, kondairak, antzinako erromesen janzkera, garaiko doinu eta musika tresnak, harmarriak eta abar luze bat. Guztia ikusgai Ega ibaia zeharkatzen duen hirian.

→ Kristina Berasain

denbora pasa

XAMAR



Lurralde elebiduna

Aurizko Udak berriki karrikatu duen herriaren historia ari nize leitzen. Alkate jaunak historia hori izan zen bezalakoa ("...tal como fue") nahi zuela kontatzea erraten du aintzin solasean, eta horren berme "historialari profesional" bati eman zakon lana.

Profesionala izateak iduri luke "izan zena"-ren, hots, egia-erakundearen kontatzeko garantia dela, atx! Uste dut nornahik ezontzen (eta pairatu) duela profesional trakets bat zernahi lanbidetan: mekanikan, iturgintzan, politikan, hezkuntzan, prentsan, erakuntzan...

Beraz, akort gira profesionalak ez duela berez

ja segurtatzen. Arazoa handiagotzen zaigu historiaren alorrean sartzerakoan. Hemen ez dira artxiboetako paper zaharrak leitzen soilik, interpretatzen ere dira eta ondorioak atera. Funtsean, ardura, ikertzaileen iritziak historikotzat aurkezten dituzte.

Aurizko historia aztertzerakoan, Herriko bertze guzietan bezala bertalde, historialariak topo egiten du mintzoaren "arazoarekin"; nahi badu, egia-erakundearen errateko, badelakoz—izpiritu olimpiko gaitza erakutsiz— ikusten ez duenik ere. Kasu hontan ikusi egiten du, baina aintzineko denboretan erdaldun batzuk bazirela frogatzeagatik, gure

profesionalak Auritz izan dela "... siempre territorio bilingüe" erraten daugu.

Ez dut Salamanca ezontzen, ez eta Valladolid ere, baina irizpide bera segituz "lurralde elebiduna" izanen dira segurki: japonese turista saldo bat ibiliko da hor barna, edota ikasle amerikarren bat, agian aleman erretiratu montioa kokatu da bertan eta ingeles irakasle natiboak ez dira falta-ko.

Segitzen dut leitzen: "Pero el vascuence seguía siendo la lengua cotidiana de la mayoría".

Harrigarriak dira batzuen sentiberatasuna eta begirunea minoria batzuekin.

Baztan • Bailara, eskurago

Baztanen zehar ibiltzeko gonbita egiten du Baliabide Turistikoaren Gidak

Bisitari ugari biltzen ditu urte osoan zehar Baztango bailarak, eta bereziki udako hilabeteetan. Horiek bailara hobekiago ezagutu dezaten, Baliabide Turistikoaren Gida prestatu du Baztango Udalak. Ibilbide turistikoak eta ohituen berri ematen da gidan.



Baztango herri, auzo, mendi eta makina bat txoko biltzen ditu gidak.

● ARTXIBOKOA

Gida bat baino gehiago, lau gida desberdin prestatu ditu Balleko Udalak kanpotik datozenentzat. Lau ibilbideek Baztango txoko desberdinak biltzen dituzte, eta horiekin batera giroan sartzeko makina bat kontu. Gida bakoitzak testuak ditu lagungarri; batez ere autoz egiteko pentsatutako ibilbideak dira, eta batetik bertzerara nola mugitu adierazten dute. Uraren kantua, Baso sorgindua, Lainoa eta lorearen istorioa, eta Inperioko bideetan barrena dira lau giden izenburuak. Baztango txoko aski desberdinetara eramaten dute bisitariak gida horiek. Herriguneko nahiz mendialdeko tokiak

biltzen ditu gidak. Horiek errazago aurkitzeko, eta Baztango bailaran leku guztiak kokatzeko, mapa bat ere badu gidak. Bertan, informazio orotarikoa aurki daiteke, hala nola, errepideak, bertzelako bideak, mugak, mendiak, eta bertze makina bat kontu.

Baztan ez ezik, baztandarrak ere bai
Baina lekuak ez ezik, gida honek bertako herritarrak ere

ezagutzera gonbidatzen ditu bisitariak, zazpi istorioen bidez. Istorio horiek baztandarren zenbait ohitura erakusten dituzte. Laxoa pilota jokoa agertzen dute —zer den, jatorria, nola jokatzen den, noiz, non...—, harrariek Baztango etxeetan duten lekuaz mintzo da, Baztango hilarri diskoidalez solasten da, baserriaren garrantzia eta papera, Herriko Etxeaz, mutil-dantzez, eta

baita erregiñeta-saratsaz ere.

Gida turismo bulegoetan eskuratu ahal izanen da, dela Elizondokoan, dela Bertizkoan. Horren truk —gidak dituen osagai guztiengatik— 400 pezeta ordaindu beharko dira, eta erosleak hala nahi badu, galdetegi bati erantzun diezaioke, aurrerantzean gidak izan ditzakeen hobekuntzak adierazteko.

→ Jon Abril



herri aldizkariak

Asier Legarda

Turismoa Sakanan

Guaixe hilabetekariko azken zenbakian, Altsasuko Informazio eta Turismo Bulego ireki berriko arduradun Ana Anduezarri elkarrizketa egin dio Nerea Baldak. Turistak bertara zerk erakartzen dituen aztertu du Anduezarri solasaldi horretan: «Natura da, batez ere, bisitariak gure eskualdera erakartzen dituen», dio.

«Gure helburua da, batetik, Sakanari buruz bereziki eta oro har Nafarroa osoari buruz informazioa ematea, eta, bestetik, datuak jasotzea: zenbat jende pasatu den, taldeka edo bakarka bidaiatzen duten, nondik datozen, zer eskatzen du-

ten... gero estatistikak egin ahal izateko datuak, batez ere. Bai kanpotarrei, bai bertakoei zuzenduta dago bulegoa, baina desberdina da batzuek eta besteek eskatzen dutena. Bisitariak, batez ere, inguruari buruzko informazioa eskatzen dute; zein ibilbide dagoen, zeintzuk diren lekuri interesgarrienak, non har daitezkeen ostatu, non jan daitezkeen... Nafarroako informazioa ere eskatzen dute. Bertakoak aipatu bigarren informazioaren bila etortzen dira: gutxi dira bere eskualdeari buruz galdetzen dutenak».

«Natura, mendia da gehienbat bisitariak hona erakartzen dituenak, eta, horre-

gatik, horri ematen diogu garrantzi gehien. Urbasa eta han inguruan, Aralar eta bereziki San Miguel santutegia dira lekuri bisitatuenak. Uztailean eta abuztuan 645 pertsona etorri dira informazio eske. Gipuzkoako jende asko etorri da, baita Madrilgoa ere. Estatutik kanpoko jendea ere izan da, Frantziakoak eta Belgikakoak batez ere. Sanfermin garaian urrunagoko bisitariak pasa ziren, esaterako, Estatu Batuetatik etorritakoak». Sakana eta Nafarroari buruzko informazioa jaso nahi duen guztiak badu nora jo, Altsasuko Informazio eta Turismo Bulegora, alegia.



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

www.nazka.com

Gaurkoan nire nazkaren Web orrialdea deskribatu nahi nuke, adiskide. Nazka-puskak osatua, kolore biziak apaindua, animazio txikiak sartuak, lotura aukeratuekin, hau da gaur eta hemen, gaurko egunkaria irakurri ondotik, osatu nahi dudana nire sentimendu-sareen papezko orrialde digitala.

Iruñeak bere alkatetzarekin egin zuen modu berean, Barcinak orain, militar bat munipen buru jarri du eta bere taldekideen soldadak igo. Hemen GIF formatuan egindako animazio txiki bat dago. Bertan militar batek eskua burura eramaten du irakurleei agur militarra eginenez. Oso moñoñoa. Gero Mayor Orejaren hitz hutsalak entzuteko artxibo bat aurkitu dezakezue: "Download Oreja hitzak" lotura urdinarekin. Lotura sakatuz zure ordenagailura "jaitsiz" gero 46 Megabyteko tamaina duela ohartuko zarete. Zuen ordenagailuak astebete beharko du artxiboa kopiatzeko.

Deustarako. Martxan jarriz gero hitz-jario motel, atonal eta narratsean emandako bost txorakeria errepikakorrek aditu ahal izango dituzue. Soinudun artxibo honek, bestalde, "loop" (informatikan "begizta") baten barruan sartua dirudi: hasten zen bezala bukatzen da, berriz ere hasteko. Hau bai kiribil malenkoniatsua! Monologo instituzional tamalgarrri honen ondotik Bilboko polizien lanera bueltatzearena dator. Bortxaketa saihestu ahal izan zutenak, bortxatzaileen lana lagundu zutehak, sekula santan gaztigitik jaso ez duten horiek, berriz ere gizarteratuak izan direla dio orrialde honek, lanera bueltatu direla alegia. Gizartearen diruarekin bizi ahal izango direla. Berri honen azpian bi lotura urdin ageri dira: "redios" eta "Krixtojesus hau lotsagabeak!". Lotura bi horiek sakatuz gero agertuko ziren orrialdeei buruz, eta beraien edukiei buruz, ez dut hitzik egingo (ez naiz ausartzen). Bukatzeko, lotura desberdin bat jarri dut: "ibaia" izena duena. Sakatzera koan Alaskako orrialde batera eramaten gaitu. Orrialde hortan ibai baten txoko elurtu eta biluzia ageri da. Bost minutuoro aldatzen da argakia, zuzenean emandako irudiak jasoz, baina beti irudi berdina dela ematen du. Lasaigarria da... ezta?

Nafarroako irrati euskaldunen paisajea

Nafarroan zortzi irrati emititzen dute egunero euskaraz. Horietako lau harremanak estutzeko eztabaidan ari dira

Lekunberriko Aralar Irratia, Leitzako Karrape Irratia, Ultzamaldeko Esan-Erran Irratia eta Etxarri Aranazko Beleixe Irratia euren harremanetan sakontzeko eztabaidan ari dira. Irrati tikiak dira, elkarren ondoan daude, programazio berdintsuak egiten eta antzeko arazoak dituzte. Koordinazioa ezinbestekoa dute, eta horretan ari dira, lau irratiaren emisio orduak eta programen kalitatea nola handitu aztertzen.

L AU IRRATIEN ARTEKO HARREMANETAN SAKON-
du behar dela uste du Jose Maria Arakamak koordinazio eraginkorra izateko. Arakama Beleixe eta Esan-Erran irratiak sortzen parte hartze zuzena izan zuen. Hortaz, badu zer erranik kontu honetan. «Langileak elkar-tu dira programazioa eta hainbat arlo koordinatuzko». Baina, azaldu duenez, lau irratiaren bat-egitea planteatzea ezinezkoa da oso izaera ezberdina dutelako. Leitzakoa eta Lekunberrikoak udal irratiak dira, eta Sakanakoa eta Ultzamaldekoa kultur elkarteek bultzatu dituzte.



Irrati lokaletan muga garbia ikusten du Arakamak. «Inguru hauetan biztanle gutxi dago, herriak oso sakabanaturik daude eta berri gutxi sortzen da, galnerra. Irrati lokal baten ezin du hamar orduko programazioa bete. Eta hainbat gauza errepikatzen dira irrati guztietan, kontaktu berak, gai berak eta elkarriketatuta berak».


Hori dela-eta, elkarlana planteatu du ordu kopurua eta kalitatea handitzeko. «Berri-maila eta kolaboratzaile guztien artean ongi hautatu eta espezializazio maila txiki bat lor daiteke. Beharrezkoa da saio bizilagunak egiteko». Beste gauza bat da emisio lokalari utzi behar zaio txoko bat. «Ez dugu ahaztu behar irrati hauek lokalak direla. Eta programazioan utzi behar da denbora bat gertueneko berriak jorratzeko, eta hementxo jendearekin dagoen lotura horri eusteko eta ez hausteko».

Erran bezala, hori guztia nola uztartu aztertzen ari dira, bilera guti batzuk egin dituzte eta, apika, goizegi da zertan gauzatu den baieztatuzko oraindik. Arazo teknikoak ere sortuko zaizkio eta ez makalak. Eta bestetik irrati bakoitzaren egoera administratiboa dago. Dena dela, Arakamak uste du jendeak gogo handiz hartu duela ideia, baina, hala ere, zuhurrak izan behar dutela pentsatzen du.

Aralar Irratia, itxaropentsu
Lekunberri, Larraun, Arantz eta Betelun 107.1ean entzuten da Aralar Irratia eta 1991ko maiatzan hasi zen emititzen. Martin Juanena langile bakarra da, baina berriemalen sare handia dute, hogeita lau bat lagunakoa. 3.000 bat lagunek entzun dezakete Aralar Irratia 10etatik 15etara. Juanenak herriarentzako zerbitzuta jo-

Saio Belexiko bizi El Arap est. SANTIAGO

Euskal irratiak



ten du Aralar. «Gure entzuleak adinekoak dira, goizetan lan egin edo ikasten dutenek ezin baitute entzun. Baina, gero, gure entzuleek kontatzen diete besteie zer esan duen irratiak. Giro hori sortu nahi dugu».

Irratiaren arteko harremanetan sakontzeko arazoak dituzte. Koordinazioa ezinbestekoa dute, eta horretan ari dira, lau irratiaren emisio orduak eta programen kalitatea nola handitu aztertzen.

Karrape Irratia, poliki
Arantz Iparragirre Karrape Irratiak bi langile-erakunde bat dugu. Haren ustez, entzuleei egunero bertako berriak eskaintzea da Karraperen eronka nagusia. Karrape Leitzan, Arizon eta Ezkurra zenbat baserrietan entzu-

ten da, 107.8an. 3.500 entzule potentzial inguru ditu eta 1995ko urrian hasi zen emititzen. Karrapekoen aldetik salatuko dira irratiaren arteko harreman horiek estutzen.

Esan-Erran, irrati aitzindari baten atzetik
Esan-Erran Irratia 1998ko abenduaren 20an hasi zen emititzen, 107.9an. Atez, Odieta, Ultzama, Basaburua, Imotz eta Lantzarako. Ametza kultur elkarteak sortu zuen eta bi langile ditu. Fermintxo Gartzitorenak adierazi duenez, orain bi ordu eta erdiko emisioa dute. «Luzatu nahi dugu, baina hementxo informazioari eta hementxo jendearekin lan egiteari begira daude».

Egunero 11etatik 13etara emititzen dute eta bi saio dituzte nabarmentzeko modukoak, etxekoandreei zuzenduriko *Berriketaren pintto* eta nekazaritzaren inguruko *Axeri moda*.

Beleixe Irratia, gazteena
Beleixe Nafarroako irrati euskaldunen gazteena da. Guaitxe aldizkaria egiten duen Be-

Euskalerrria irratiaren programazio berria

Astelenetik ostegunera

Irailaren 13an hasiko da
7.25: Albiste aurrerapen laburra
7.55: Albiste aurrerapen laburra
8.30-9.00: Bertatik Bertara (albistegia)
10.00-12.00: Zokobetailu (magazina)
13.30-14.00: Egunean Egunekoa (albistegia)
15.00-16.00: Bazkalburukoa
18.00-20.00: Metropoli Forala (magazina)
21.00-22.00:
astelehena: *Lerro Arlean* (literatura saioa idazleekin)
asteartea: *Hau ez da Zugarramurdi* (elkarrizketa saioa)
asteazkena: *Klaketa* (musika saioa gonbidatuekin)
osteguna: *Gazte Borraste*

Ostirala

(16.00ak arte beste egunetan bezala)
18.00-19.00: kultura, animazioa, agenda
19.00-20.00: kirol saioa

Ostirala

9.00-10.00: *Xinguli Mangulu* (haurren saioa)
12.00-13.00: *Asteroida* (astaren kronika)

rrik elkarteak bultzatu zuen eta Sakanan entzuten da. 107.0an. Sakanan 10.000 bat euskaldun dago, baina Belexikoek ez dakite zenbat entzule izanen ote dituzten, hasi berriak direlako. 1999ko maiatzaren 3an izan zuten lehen emisio eguna. Bi langile ditu eta goizegi bi orduz emititzen dute. Alfredo Alvaro erratariak adierazi duenez, irrati ikastaro bat emanen dute eta gero euren asmoa da arratsaldeetan eskualdeko jendeak saioak hartzea. Baldintza bakarra euskara da. «Jendea irratiak hurbildu nahi diogu eta beraiek protagonista izan daitezten». Hasi berriak direnez, kolaboratzaileen sarea finkatu behar dute oraindik, baina, ezbaitek gabe, euren eronka nagusia, baita beste irratiarena ere, jendea irratiak ezagutaraztea eta hurbiltzea da.

→ Asier Azpilikueta

Dozena bat urte eta gaztetuz

Iruñerriko Euskalerrria Irratiak bere hamabigarren denboraldia hasiko du heldu den astelehenean. «Esan daiteke bere umezarotik atera dela eta bere heldutasunaren bila doala», erran du Mikel Bujanda zuzendariak. «Heldutasun horri heldu eta erantzuna eman nahi du orain arte bezain serio, baina aldi berean gaztetuz. Gaztetuz programazioaren aldetik, eskaintza ausartagoa eginez, eta jende gaztearekin, aurreko urteetan hasia den ildo batetik». Euskalerrria Irratiaren kalitatezko programazioa eskaini nahi dute, «erakargarria, atsegina eta funtzionala, eta, betiere, Iruñerriko euskaldunen zerbitzuan». Programazio berria nabarmentzeko da *Metropoli forala* izeneko magazina. Pello Argiñarena eta Juan Kruz Laskasta kazetariek zuzenduko dute eta kolaboratzaile entzutetsuek dute aberastuko. Andoni Egaña, Jasone Osoro, Arkaitz Cano eta Xabier Silbeirak, bertzeak bertze.

Lizentziaren afera, alde batera utzi dute. «Irrati honek daramatzen urteetan gehiegitan arduratu behar izan dugu horrezaz», erran du Bujandak. «Bide juridikoak jarraituko du, baina guk geureari segituko diogu, Ahalagin guztia irratiari eskaini nahi diogu».



Egoitzen atontzea

1981ean hasi zen emititzen Xorroxin Irratia, eta Baztan, Malerreka eta Bortzirietan entzuten da 107.5ean. Inguru horietan 20.000 bat lagun bizi dira, eta horren erdiak irratiaren entzuleak direla uste dute. Saioak egiten lau langile dira, eta bada beste pertsona bat publizitate eta idazkaritza lanak egiten.

«Urte berriarekin batera Elizondorat etorri ginen, eta egoitza aldatzeaz batera materiala ere berri egin dugu», azaldu du Josetxo Apeztexea erratariak. Egoitza material hornitu behar dute, eta pixka bat atondu ere inezturak sar ez daitezten. «Eta bestetik dago irratiari Lesakako lizentzia eman ziotela, eta hor ere estudio tikiaren bat jarri behar dugula. Diru inbertsio handia egin behar dugu alde horretatik. Ez dakit aurtentzen hori guztia beteko ote dugun, baina aurtentzen bada, hurrengo bi urteetan».

Programazioari dagokionez, guti goiti-behetti, ez da aldaketa handirik egonen. Orain arte hutsune handiena asteberrietan zuten. Aurtengo udaberrian hasi ziren larunbat eta igandean lau orduko irratsaioa egiten, eta horri eutsi nahi diote.



Euskara ezberdinen arteko oreka

Aezkoan 107.9an eta Erroibar eta Auritzen 103.4an entzuten da 1993ko urtarrilaren 22tik. Hiru langile daude, Asier Iriarte horien artean. Iriartek erran duenez, Irrati Irratiaren eronka nagusiak euskararekin du zerikusia: «Jendeak galdu egin du bertako euskara, eta guk bultzatzen dugu. Bestetik, jendearen arteko harremanetan sakondu nahi dugu, hau inguru itxia baita».

Irrati Irratiak hiru orduko magazina egiten du egunero 11:00etatik 14:00etara. Darabiltzen euskara batua da. «Hementxo euskararen hitzak sartzen saiatzen gara», zehaztu du Iriartek. «Aezkoako hizkera behintzat ez dago hilik, edadetuak badakite eta erabiltzen dute, eta horren zaharrak ez diren bertze batzuek ere ulertzen dute. Baina batua busean egiten badugu zaharrek ez dute entzuten ulertzen ez dutelako, eta aezkeraz egiten badugu Erroibarrekoek dena ez dute ulertuko eta ikastolan hasi diren gazteek zalantza gehiago izanen dituzte. Oreka bat bilatu behar dugu».



Emankizunen kalitatearen hobetzea

Irulegi Irratia 1981eko abenduan hasi zen emititzen, eta Nafarroa Beherean entzuten da 91.8an, baina baita Erroibiko inguruan eta Lapurdiko barnealdeko zati batean ere. Irulegiri zazpi langile badira, baina ez guzirik denbor osoz, eta egunero irrati fidelki entzuten dutenak 12.000 bat dira.

Ipar Euskal Herriko euskarazko hiru irratiak Euskal Irratiak egitura sortu zuten duela pare bat urte. Xede nagusia hiru irratiaren arteko elkarlana eta emankizun komunak gehitzea zen. Jojo Bidart Irulegiko erratariak adierazi duenez, «bide horrek segitzen du aitzina». «Egunero lau ordu emankizunetan elkarrekin egiten ditugu», erran du Bidartek. «Indarra egin nahi dugu lau ordu horien kalitatea hobetzearen. Ez dugu urrats berezirik eginen kanitza emendatzeaz buruz, baizik eta orain egiten dugu horren hobetzea, bi arlotan, gure arteko informazio sarea osatze horretan eta emankizunen kalitate hobetzean».



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Arnaud Abbadie, laborarien laguna

Laborariak baditu aldekoak eta etsaiak bai lurreko bai aireko ihizietan; on baizik ez litake beraz, apur bat bederen, ezagut ditzan zoin zoin diren, batzuen begiratzeko, eta bertzeen ahal oroz galtzeko...



ARNAUD ABBADIE 1843. EAN sortu zen, Amikuze aldeko Bitiriñeko Garatian; 16 urterekin Larresoroko apezgaitegi tipian sartu zen, zuzendari lanetan Maisonnave apezgaitegiaren, eta geroago, Baionako apezgaitegi nagusira aldatu zen, hantxe bertan 1868.eko ekainaren 6an apezte zelarik. Lehenbiziko betebeharrak bi seminarioren arteko bidea egitera behartu zuten: 1868. ean berean Larresorora joan zitzaizun ikastegi tipiko irakasle, 1876. ean, berriz, Baionako ikastegi nagusira itzuli zen zeregin berarekin, eta azkenik, 1880. ean, berriz ere Larresorokora, Baionakora aldatua zuten Souberbielle zuzendariaren postuan aritza joanarazi zuten. Urte guzti hauetan irakasten zituen gutxi gehiago gaiak filosofia eta lur-gintza genituen; bi seminariotan lankide izan zituen artean Manex Hiriart-Urruti, Blaise Adema edota Jean Barbier zuden, eta ikasle izan zituen artean, berriz, Jean Etxepare, Jean Saint-Pierre, Jules Moulier, Laurent Apestegi edota Jean Elissalde aipa ditzakegu. 1881. ean Baionako eliz-nagusi-ko ohorezko kalonje izendatu zuten, eta 1907. ean, aldiz, apezpikutegi kontseilukide egin zuten; hil-hurren zegoela, 1916.eko otsailan alegia, Orango ohorezko kalonje izendatu zuten, baina martxoaren 2an Beloken itzali zitzaizun betiko. 1929.eko irailean Euskaltzaleen Biltzarrekoek ohoratu zuten sortetxe atarian plaka bat jarri.

Euskal idazle moduan *Eskualduna* astekarian eta *Fedeco Propagacioneco* aldizkarian idatzi zuen. Lehenengo argitalpenen Abbadiek *Laborariet* goiburuko saila kudeatu zuen hamabost bat urteko bitarte luzean, nekazarietako interesgarriak zitzaizkiekeenak nasaiki jorratuz — orduan ageririkoen batzuk *Gure Herria*-n berragertu ziren 1975. ean, sator, uli, jinko-oilo eta har laborarien etsaiak izkiriagai harturikoak hain zuzen ere —. Egia esan, Abbadie genuen, Hiriart-Urruti eta Blaise

Adema lankideekin batera, *Eskualduna* aldizkariaren bultzatzaile nagusia argitalpenaren lehenbiziko urteetan. Abbadie ez zen aritu, ordea, aldizkariaren zuzendaritza lanetan, beste biek egin zuten antzera, eta Hiriart-Urrutik politika zein erlijio arloko berriak eta landu, eta Adema asteko berriak jaso eta bere iruzkin goxoekin eskeintzen zitzaizun bitartean. Bitiriñekoak eskoletan irakasgai zuten lurgintzari buruzko interesgarriak gelatik kanpo elkitzen zituen nekazari euskaldunet lagungarri gerta zekizkien. Honen hariaz zehatz, ihardun zigun Etxepare mirikuak 1925.eko *Lekaroz* aldizkarian: "Laborantzaz bakarrik zen hura beti mintzo, laborarien lanez eta urratsez, mendetik mendera jakintsuago bilakatu baitira gure Eskualerrian berean, eta, oro ikusiz, besoak azkar bezain adimendua erne dutelakotz eskatzen. Eskualdun laborariet berek egundainotik lantu hizkuntza zerabilan, euskara ginarrria, heriotzerik ez duken euskara. Lurrekilako ara zaharretan hoberener jarraiki bazagon, berrieta-
rat erreki ixuria zen, oraino hobeak zitzaizkonean. Agintariaren menitzala nekazalaren gogo azkarra, jakintsuen argi hadadura, apez sainduen maneskua, eskualdun zaharren zuhurtzia, haurren lañotasuna, gizon eginaren ongirako oldarra, oro bazituen Larresoro ikastetxe buruzagi ezin ahanitziko harek".

Gorago aipatu bigarren aldizkaria, *Fedeco Propagacioneco urtecaria edo fedearen propagacioneco berriac urteca ematen dituen* bi-hilerokoa genuen, 1877.eko irailaz geroz Baionako Lasserrere-
nean ateratzen hasi zena, eta *Annales de la Propagation de la*

foi kaierraren euskal aldaera genuen oroz gain; argitalpenaren lehenbiziko zuzendaria Maisonnave kalonjea izan zen — Abbadie apezgai zela Larresoron zegoen aipatu zuzendari bera —, eta hasierako mezenas Baionako ohorezko kalonjea zen Larrousse apezte genuen. Abbadie zuzendari lanetan 1891.era arte arizan zen, ardura horren lekukoa Johannategik hartu ziolarik — horra hor, beraz, ezinbestean *Eskualdunaren* zuzendaria ez izateko zinezko arrazoi pisuduna, bada, gaitz baitzukeen bi paperen lema-kudeatzaile ihardutea —. Laborantza alde batera utzirik, erlijioaren hau berebiziko izkiriabide izan zuen Abbadiek, ez bakarrik *Fedeco propagacioneco* hartan; *Hazparneko Kalbarioa* eta *Kantikak eskuaraz* deitu 1892.eko liburuan prediku bat eman zuen argitara, eta lan solte moduan *Apezte soldado* idazkia atera zuen Baionako Lasserrere baitan 1890. ean — lan honen berrargitarapena *Euskera* aldizkarian atera zen Iazkoan Piarres Xarrittonen eskutik —, Frantziako gobernamentuak apezteak ere soldadutzat egin zezaten onaturiko lege berriaz luze tajaturiko testua daukaguna: "Lege berri horrek badakharke beraz, heldu den urthetik goiti, apezte geie behar-
ko dutela bertze gucie bezala, eta heiekin batean soldadogoa egin, bai eta ere apezte, zoin beren adinaren arabera (...) legearen egileen che-
dea baita erlijionearen gal araztea. Guce ere badakigu orai nolacoa den, eta badakigu giritino batek nehola ere ecin dezoketela lege horren aldecoer escu-
ric eman; giritinoec beren indar guciac behar dituztela bildu lege galgarri horren hausteco, eta ez dutela epheric hartu behar nun ez duten lurrerat aurdiki".



etorri ahalean

Patziku Perurena



Literatura eskolan

GIZA IZURRITE BATEN birus ugalkor moduan baizik ezin litezke hartu eskolak. Zinezko eskola humanista batek, deus izatekotan, giza izpiritua lasatzeko eta indartzeko balio beharko luke, gogo gozatzeko; baina, ezinezko da hori: gizaki libreak ezin baitu deustako balio atzo ikasitakoak. Horregatik, eskola modu guziak dira, izatez, gogo arautzeko eta estutzeko sistimak.

Inon baino hobeki ikusi dut hori, "Idazleak Eskoletan" kontu dela eta, han edo hemen tokatu naizenetan. Pena ematen du hurrek beren mundualdiaz ari duten fikzio alfer eta asper-
rak.

1.- Orohar, gauza arrotz eta urrutikotzat daukate literatura haurrek. Inork ez die ongi erakutsi harako. "Zer da poesia? Poesia zu zeu zara!" delako hura. Bestela esan: nork bere esperientzia bizian aurkituko dituela, alegia, literaturaren aurreneko sustrai majikoak, edo ez dituela sekulan aurkituko.

2.- Zerbait harrigarri, markaz fuerako, gertatu behar duela uste dizu haurrak kontakizun bakoitzean: heroe lapurren batek galasi guziak bere zakuratu, dama lirainen batek gizandiak umetu, txingurri urdinen batek Euskal Herri osoa salbatu... Eta gaitzerdi, hori dena haurraren irudimena argitzeko balitz, eta ez eredu zozo jakinetara bilduz, bere izate libretik distraitzeko.

3.- Maisuak ipuina osatzeko egitura bat inposatu dio: gertalekua, pertsonaien deskripzioa, gertaera, ondorio morala... Eta gero, eskema hori betetzen, aritu da haurra, bi bider derriortua bezala, batere gogo eta sentipen pertsonalik gabe... Eta seguru nago, literatur kontua, asmazio mekaniko bortxatu eta ergeltzat jo duela gazteak.

Nola urratu burnizko kontrako den sare hori? Ni ez naiz pedagogoa, baina, badakit, fa-

mili dirudunek beren esklaboak lanbide desberdinetan heitzeko eskolei deitzen zela *pedagogioak* Grezia zaharretan, eta beraz, badakit gaur oraindik, ikasle bokaziodun oro, ezin litekela funtsean esklabo bokaziodun baizik izan.

Beltza da kontua, baina, behar bada, galdemodu ttiki batek sinala lezake aterabidea. Agian, diot, haurrari bere buruz galderak egiten uztea litzakela munduko gauzarik ederrena, humanistena eta antipedagogikoa. Ez galdera topikoak. Baizik eta galdemodu pertsonalak? Intimok?... Zergatik jazten ditut braga, iztertxokoan egiten badizkit llagak? Zergatik esertzen da maisu hori hor bakarka, goitixeko? Guk baino gehiago ikusteko? Gehiago bai, baina, guk baino hobeki ikusten ote du?

Behin bere buruz galdera intimok egiten ikasi ezker, handik aurrera libertsio hutsa litzake haurraren bizia, bere buruz askenahi izate hutsa. Eta erantzunak moldetu ahalean, haren izakera bihurritzen joan litzake taigabe ernaberrituz. Galdera bidez, biziberritu ahalean, oroberritu, eta nork bereganatu egiten baititu munduko sekretuak, huskeria aspergarri uste-ko askoren azpian mila ezusteko liluragarri bezain engainagarri bilatuz.

Izatez filosofia, literatura, horixe da: galdera intimo bati ematen diogun erantzuna. Edo zein huskeriari buruz galde egiten ikasi baduzu, libre zara engoitik: alaia, irekia, estzeptikoa, sinesgaitza, bihurria, zeure nortasun puxkaren jabe... Munduko enigma eder guziak, galdera ttiki batek estaliak dauzka funtsean. Eta mundu guziak konbentzioz bizi duen monotonia horretatik, nork bere puxka, beste inork ikusi ez duen horixe, atseginez bereganatzeak, egiten du libre gizaki bakoitza.

Eta eskola oro, horren kontrako diziplina itogarri baizik ez da.

Ziria

• Motxorrosolo •

Soziologiaren bandera

GARAI BATEAN KARLISMOAK ELIKATU ZITUEN ALDERDIAK; EDOZEINEK arrasto txapelgorria zuen, pasa den mendekoa bazen ere. Egun, kontrakoa ari da gertatzen; agintek jatorri guztietakoak ditu liluratzen. Bandera guztiak arbuatzen zituzten horiek, ikurgintzan aditu. Horra hor gure soziolo-
goendako lana.

Becky Siegel

☉ Koreografoa

“Nafarroan ere egiten ahal da dantza garaikidea”

Becky Siegel dantza garaikideko koreografoa, irakaslea eta Tempomobile dantza taldeko zuzendaria da. New Yorketik Nafarroara etorri eta bi urteren buruan bazuen dantza garaikideko talde propioa, dantzari tradizionalen lurraldean dantza garaikiderako lekuri bazegoela erakutsiz.

IRAGAN ABUZZUAREN 28AN Bonn hiriko udako jaialdian izan zen Tempomobile. Alemaniarrei «asko gustatu zitzaizen» Nafarroako dantza garaikideko konpainia bakarrak eskaini zien ikuskizuna.

■ Nolako izan zen Bonner Sommer jaialdiko?

Gau magikoa izan zen. Jaialdi polita zen, atari zabalean. Horrek beldurra ematen zidan. Baina ikusleak oso adi zeuden, antzetzoki batean baleude bezala, eta plaza lepo bete zen. Asko gustatu zitzaizen. Eta iaz Paderbornen gertatu zitzaigun gisara, bis bat dantzatu behar izan genuen. Antolatzaileak ere oso pozik zeuden gurekin. Bukatu eta segidan galdetu ziguten ea noiz joan gintezkeen berriro. Paderbornetik ere deitu gaituzte apirillean itzultzeko.

■ Nolako izan zen ikuskizuna?

Hiru koreografiaz osatutako ikuskizuna zen: *A way, Casi* eta *Bihotzaren hegoak*. Azken biak bost musikarirekin egin genituen, Kepa Junkera trikitilaria buru. Bost musikarirekin aritzen ginen lehen aldian, eta ikaragarria izan zen. Keparekin egin ditugun piezak beti izan dira festiboagoak, alaiagoak.

■ Noiztik ari zarete Kepa

■ Junkerarekin lanean?

1997tik. Niri betidanik asko gustatu zait musika folklorikoa. Bere musika entzun eta hagitz harritu ninduen folkloaren eta musika garaikidearen arteko nahasketa hori, folkloaren mugen zabalte hori. Koreografia baterako ideia bat izan nuen. Elkar ezagutu genuen eta nuen ideia komentatu nion. Gure lanaren berri jakitera etorri zen, asko gustatu zitzaion, eta ordudanik hainbat koreografia egin ditugu, batzuetan musika grabatuarekin eta beste batzuetan zuzenekoarekin.

■ Noiz sortu zen Tempomobile?


New Yorken hasi nintzenetik koreografia interesatu zait gehien. Bizitzak Nafarroa ekarri ninduelarik, klaseak ematen eta dantza munduko jendea ezagutzen hasi nintzen. Sortze lanarekin aitzina egiteko moduaren bila, jende multzo bat elkartu eta lanean hasi ginen 1994an. Lehen esperimentua gustura egin genuen, jendeak biziki ongi erantzun zuen, eta ordudanik ari da lanean Tempomobile.

■ Ezberdintasun handia dago Iruñearen eta New Yorken artean?

Bai, dena da ezberdina. Bizitza ulertzeko beste modu bat dute han. New Yorken kultura asko dago. Leku interesgarria da hezteko, informazio anitz jasotzeko, dantza ikasteko. Mota guzietako dantza egiten da, klasikoa, garaikidea, eta herrialde askotako dantza tradizionala. Baina esnobismo handia dago horren inguruan. Badirudi dantzatzeko New Yorken egon behar duzula. Baina Nafarroan ere egiten ahal da dantza garaikidea. Mundua horrenbeste tikituda, non ez diola axola non zauden, gustura bazaude atsegin duzuna egiten. Dantza nazioarteko gauza da. Beharbada horregatik gustura ikusten dute gure ikuskizuna Nafarroan zein Alemanian. Hori da dugun abantaila. Edozein lekutara joan zaitezke eta ulertuko dizute. New Yorken oso ohikoa da klaseetan hizkuntza ezberdineko jendea egotea, baina espresatzen dira gorputzaren bitartez eta elkarri ongi ulertzen diote.

■ Nafarroako dantza garaikideko konpainia bakarra da Tempomobile.

Halaxe da, bai. Beste saio batzuk izan dira, baina uste dut ez dutela jarraitu. Oso zaila da konpainia bat eramatea, irmotasuna eta diziplina eskatzen du, eta gogo handia. Lan handia egiten dugu, astean bost egunetan entseatzeko dugu lau orduz. Eta hori guti da. Baina ikusi dugu jendea gustatzen zaiola eta erantzuten duela. Batzuetan dantza egiten dugu dantza garaikidea inoiz ikusi ez duten lekuetan, eta gustatzen zaie. Horrek jarraitzeko animoa ematen dizu. Nafarroan beharbada horrenbeste dantza tradizional dagoelako falta da dantza garaikide gehiago. Baina, erraterako, Tempomobileko bi mutil dantzariak izan ziren. Niri koreografiatzen anitz gustatzen zait euskal folkloaren elementuak aipatzea, eta haiek dantzan izan duten sustraiarekin esperimentatzea eta hizkera



● MIKEL SAIZ

pertsonalago batera eramatea.

■ Zer proiektu du orain Tempomobilek?

Iaz hasi genuen programa didaktikoa egiten jarraituko dugu. Bestetik, egunak zehaztu behar ditugu hainbat antzetzokitan. Baina ez dugu

ikuskitzen berririk aterako. Nekaturik nago, gainera. Bost urte daramatzat urtero ikuskizun bat ateratzen eta atsedena behar dut. Nahiago dut urte hau baliatu erein duguna jasotzeko.

→ Asier Azpilikueta

soslaia

Becky Siegel Coloradoko Denver hirian jaio zen, 1959an, eta, bi hilabete zituelarik, New Yorkera joan zen, familiarekin. New Yorken Mikel Esparza margolaria ezagutu —Arte Ederrak ikasten ari zen Mikel— eta berarekin etorri zen Iruñera, 1992an. Bi seme-alaba dituzte, Iban (12 urte) eta Lorea (8). Becky djoenez, bizitza kalitateari dagokionez, “gaizki bizi da New Yorken, diru asko ez baduzu”. Aldaketa, oherako izan da, hemen oso gustura baitago.

New Yorken, oso tikitian hasi zen dantza klasikoarekin, baina berehala hasi zitzaion interesatzen dantza garaikidea. Martha Graham eta Merce Cunningham-en eskola garrantzitsuetan ikasi zuen, eta, zenbait konpainiatan ibili zen bitartean, bere lehen esperimentuak egin zituen koreografo bezala. Nafarroara etorri eta berehala sortu zuen bere taldea, Tempomobile. “Ez nekien gaztelaniarik hona etorri nintzenez eta eskolak emateko gorputzaren espresioa erabili nuen”, erran du Becky.

Tempomobile taldeko zuzendaria da, koreografoa eta dantzaria, eta dantza garaikideko klaseak ematen ditu Nafarroako Antzerki Eskolan. Horren guztiaren batuketak bizitzeko ematen dio, baina onartzen du ez dela aberats egiteko modu ona. Beckyrendako, taldea funtsezko gauza da. Dantzatzen jarraitzen du, baina geroz eta gutiago.

“Dantza nazioarteko gauza da. Beharbada, horregatik gustura ikusten dute gure ikuskizuna Nafarroan zein Alemanian. Edozein lekutara joan zaitezke eta ulertuko dizute”

Noski Jator
PALEOLITIKOAN

K.a. 20000.
urtean....
Hau da:
Ergatibo duneko
Bigarren
urtean....



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Josuren alde

HASIA DA KURTSOA, BAI ESKOLETAN eta baita alderdien egoitzetan ere. UPNkoak fuerte dabil-tza, lasai, etorkizuna inoiz baino argiagoa delakoan. Sanzen lehen hiru urteak beteta, bigarren legealdian azeleradorea zapaldu nahi dutela dirudi, bai Diputazioan eta baita Iruñeko Udalean ere.

Aspaldiko proiektuei ekiteko garaia heldu da. Proiektuei ekin eta, batez ere, legealdia amaitu aurretik burutu, horrek eman dezakeen etekina bozetan jasotzeko. Sanzek badaki, inork baino hobeki, ametsak errealitate bihur daitezkeela, bigarren izateko sortua dena, esaterako, lider izan daitezkeela. Orain, sozialisten laguntzari esker, gehiengo absolutuaren ametsa gauza litekeela pentsatzen hasteko garaia da.

Barcinak, berriz, ez du udan atsedetik hartu nahi izan. Izan ere, proiektu horiek lau urteko epean burutzeko ez da egun bakar bat ere galdu behar. Proiektuak bultzatzeaz gain, aurreko gobernuarekin zerikusia zuten guztiak zokoratu eta tartari ginda jartzeko militar bat jarri du udaltzainburu, eskuinekoen afizioak zeintzuk diren gogoratzeke edo...

Militar bat udaltzainburu. Badakit ez dela UPNk egin dezakeen gauzarik eskandalosoena, baina aitortuko dizuet ezagutzen ez dudana Josu Ganuza hura orain estimatu egiten dudala. Josu eta militarren artean, ni, dudarik gabe, Josuren alde. UPNkoek ere ez dute dudarik. Militarra, kanpotarra eta, batez ere, izen euskaldunik gabea bahi dute udaltzainburu.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► **Antsoain:** Buitraker eta Ost taldeen kontzertua asteazkenean, Lapurbide plazan, 23.00etan.

ANTZERKIA

► **Zangoza:** Haurrendako animazioa izanen da egunero. Astelehena *Cuentos visibles y reversibles*, Aragoiko Pingalirainaren eskutik; asteartean, *Jurujujaja* Argentinako Nany Cogornoren; asteazkenean, *Kukubel*, Kukublitzok eskeina; ostegunean, *Subete al carro* Valentziako L'Home dibuixat tadearen eskutik; ostiralean, *¡Agu!* Kataluniako Xirriquiteularen; eta larunbatean, jaien bukaera ospatzeko, Toki Eder taldeak gaur eta betiko jotaketak antolatuko ditu.

► **Zizur Nagusia:** Bihar taldearen eskutik *Kli!, Klal!, Birziklal!* txotxongilo lana ikusgai izanen da astelehenean Zizurko Kultur Etxean goizeko hamaketan.

► **Zizur Nagusia:** Hankagorri taldeak *Mukikrossa* haurrendako ikuskizuna aurkeztuko du asteartean, Erreniega parkean, 18.00etatik aurrera.

HITZALDIK

► **Iruña:** Gaur terapia erregresiboaren inguruko hitzaldia emanen du Jesus Gonzalez de Bedoyak 20.00etan Zentzu Iruña zentruan.

ZINEA

► **Zizur Nagusia:** *Alhambra*ko printzea haurrendako filma ikusteko parada izanen du bihar Kultur Etxera 18.00etan hurbiltzen denak.

ERAKUSKETAK

► **Iruña:** Ziudadelako labean

igandea arte izanen da ikuskai Benjamin Menedezen *Tierra Tierra* erakusketa. Armen aretoan berriz, *Que inventen ellas* emakumeek asmatirko hainat tresnen erakusketa egonen da irailaren 19a arte.

IKASTAROK

► **Iruña:** Andraizek emakumeendako norberarekiko eza-guera ikastaroa antolatu du

irailaren 21, 23 eta 28rako. Ikastaroan emakumearen sexualitatearen alor anitz landuko dira. Informazioa 948-422760 telefonoan.

► **Iruña:** Zabalik dago Eusko Ikaskuntzaren *Jakitez* ikastaroan izena emateko epea. Ikastaroa hastear den ikasturtean garatuko da (99ko urritik 2000ko ekaina arte), 255 irakas ordu izanen ditu eta unibertsitate ezberdine-


tatik etorririko ehunen bat doktorek emanen dute eskola. Informazioa 948-222105 telefonoan.

BESTELAKOAK

► **Barañain:** Gazteen astea eginen dute Kultur Etxean astelehena eta igandea bitartean. Musika, kirola eta hitzaldiak izanen dira Barañaingo gazte kolektiboek antolatuta.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—¿E qué tal os rapaces?
—Ténoche un tan listo que ten quinze anos e xa non crê en Deus.

- Eta haurrak, zer moduz?
- Ene batek, hain argia denez gero, hamabost urterekin ez dik Jaikoagar sinesten.